## Editorial

# Ate bat zabalik

*ATEA zabaltzen da, ate handi bat, eta beste aldean mendiko paisaia ederra agertzen da, paisaia zabala eta era askotakoa, erakargarria oso, gailur garaiak, horma handiak eta mazela elurtuak agertzen direlarik. Aukeraz beteriko erronka da eta mendizale asko sentitu daitzeke deituak.... baina ¡kontuz! Ezin daiteke hasi bidaia edozein modutara. Adibidez, oraingoan ezin daiteke joan bakarrean, taldean joan beharra dago. Eta irtenaldia oso ondo prestaturik eraman behar da, oso ondo estudiatua (horixe da berba). Hemen inprobisazioak ez du balio. Joan ahal izango da arau zehatzak, zientifikoak eta teknikoak aplikatzen badira. "A la última" egon behar da arrakasta izateko espedizio honetan.*

*Beste modu batera esanda, Euskal Mendizale Federakundea onartu berria izan da Alpinismoko Elkarteen Nazioarteko Batzarrean (AENB). Une hau zerbait garrantzitsuren hasiera izan daiteke. Baina berau komentatzen hasi baino lehen, omenaldi publikoa egin nahi diot FEDME delakoaren aldetik izan dugun laguntzari. Ez zen logikoa izango oztopoak jarri balituzte. Ez dute beren baimena eman soilik, gure eskaera aurrera joan zedin guztiz derrigorrezkoa, baizik eta animatu egin digute eta lagundu bideko oztopoak gainditzen. Eurak eta baita ere AENBeko beste bi partaide katalandarrak, FEEC eta CEC direlakoak. Honela gustua ematen du proiektu handi honetan parte hartzeak.*

*AENBean sartzeak aukera asko duen mundu bat zabaltzen digu. Zeren AENBa ez da federakunderen federakundea soilik eta ez kluben klub bat ere. Beste gauza asko da, baliagarriagoak seguruenik. Jardunean ari den mendizaletasunaren, hots 72 miloi mendizaleren ordezkaria da auzialdi ofizial guztien aurrean. Zerbitzu-hornitzailea da bere jarduera-modalitate desberdinentzat. Etorkizunerako tranpolina da maila altuenean lehiatu nahi dutenentzat. Baina, batez ere, batzar bat da, irekia eta jasankorra. Nazioarteko lan-taldetan parte hartzeko gonbidapena da.*

*Euskal mendizaletasunak baieztatu egin du arlo askotan oso urrutira eta oso altu heltzeko gai dela. Adibidez, zailtasunezko alpinismoan edo kirol-eskaladan aurreko marran kokatu diren tiporen bitartez, Himalaian mendiak igoten eroso sentitzen diren lagun-talde asko dela medio, populazioaren mendiarekiko zaletasun-bolumen handiak eraginkortasunez antolatu dituzten kluben bitartez eta, zergatik ez dugu esango, legez harro sentitzen gareneko mendi-aldizkari bat argitaratzearen bitartez. Ba, momentua da masa kritiko hori antolatu dadin, mendiaren munduko arazo garrantzitsuenak zientifikoki eztabaidatzen diren nazioarteko batzarretan parte hartzeko gai dela frogatzeko ere.*

*Uste dugu merezi duela ahalegin egiteak ea kokatzen garen nazioarteko maila horretan. Aukera hori opa digute eta erronka onartzera goaz. Horretarako lortu behar dugu identifikatu daitezen, bidea zabaldu dakien, espresatzera animatu daitezen hurrengo ikerketa-arloetan parte hartzeko prest dauden aditu motibatu guztiak: mendiaren babespena, lorpidea eta kontserbazioaren arteko oreka, gazteriaren hurbilketa, espedizioen problematika, mendizaletasun seguruagoaren bilaketa edo ikuspuntu etiko eta juridikoak.*

*Hasierara itzultzen gara. Lan-taldeak sortu beharra dago. Bultzatu egin behar dira ikerkuntza eta ezagumenduaren kudeaketa. Gure astialdiko jardueren maila teknikoa igo behar da. Hau egiteko modu argi bat zera da, mendizaletasuna praktikatzearen mundua eta unibertsitatearena hurbiltzea. Honi dagokionez, EMFa prestatzen ari den ekintza polit baten berria eman nahi dizuet: mendizaletasunaren gizarte-arloei (ekologia, arriskua, TIC direlakoak) buruzko hiru egunetako kurtso bat, UPV/EHUaren Udako Europar Kurtsoen barruan, Donostian, datorren irailean. Lehen entseiu bat izango da, Estatuko aditu onenak ekarriko direlarik, arazo handiak planteiatzeko eta eztabaida konponbiderantz bideratzeko. Eta baita hurrengo urteotan gai hauetan espezializatuak diren gure profesionari eta akademiko-taldeak agerira atera daitezen. Etekina mendizale guztiontzat izango da.*

# Una puerta abierta

SE abre la puerta, una puerta grande, y al otro lado aparece un magnífico paisaje de montaña, un paisaje amplio y variado, lleno de atractivos, con altas cumbres, grandes paredes y laderas nevadas. Es un desafío repleto de posibilidades que puede hacer que muchos montañeros se sientan llamados... pero ¡ojo! No se puede emprender la travesía de cualquier manera. Por ejemplo, esta vez no se puede ir en plan solitario, hay que ir en equipo. Y hay que llevar la salida muy bien preparada, muy bien estudiada (ésa es la palabra). Aquí no caben improvisaciones Sólo se podrá ir si se aplican unos criterios rigurosos, científicos y técnicos. Hay que "estar a la última" para tener éxito en la expedición.

Dicho de otra forma, la Euskal Mendizale Federakundea acaba de ser admitida en la Unión Internacional de Asociaciones de Alpinismo (UIAA). El momento puede ser el comienzo de algo importante. Pero antes de empezar a comentarlo quiero hacer un homenaje público al apoyo recibido en este paso por la FEDME. No habría sido lógico que hubiesen puesto dificultades. Pero hay que reconocer que su postura ha sido todo lo contrario. No sólo han dado su autorización, imprescindible para que prosperase la solicitud, sino que nos han animado y ayudado a resolver las dificultades del camino. Ellos y también los otros dos miembros catalanes de la UIAA, la FEEC y el CEC. Así da gusto participar en un proyecto ambicioso.

La entrada en la UIAA nos abre un mundo de oportunidades. Porque la UIAA no es una federación de federaciones ni un club de clubs. Es otras muchas cosas, probablemente más útiles. Es el representante, ante todas las instancias oficiales, del montañismo activo, es decir de 72 millones de alpinistas. Es un suministrador de servicios para sus diferentes modalidades de actividad. Es un trampolín de futuro para los que quieran competir al más alto nivel. Pero, sobre todo, es un foro, abierto y tolerante. Es una invitación a colaborar en grupos internacionales de trabajo.

El montañismo vasco ha demostrado que es capaz de llegar muy lejos y muy alto en muchos aspectos. Por ejemplo, con individuos que se han situado en primera línea en alpinismo de dificultad o en escalada deportiva, con muchos grupos de amigos que se sienten cómodos ascendiendo en el Himalaya, con clubs que han organizado con efectividad los grandes volúmenes de afición al monte de la población y, por qué no decirlo, con la publicación de una revista de montaña de la que nos sentimos legítimamente orgullosos. Pues bien, es el momento de que toda esa masa crítica se ordene para que también demuestre que es capaz de participar en foros internacionales en los que se debaten científicamente los problemas más relevantes del mundo de la montaña.

Creemos que vale la pena realizar el esfuerzo para intentar situarnos en ese nivel a escala internacional. Nos ofrecen esa oportunidad y vamos a aceptar el reto. Para eso tenemos que empezar por conseguir que se identifiquen, que se les abra el camino, que se animen a expresarse, a todos los expertos motivados para colaborar en un espacio de investigación, en temas como el de la protección de la montaña, el equilibrio entre acceso y conservación, el acercamiento de la juventud, la problemática de las expediciones, la búsqueda de un alpinismo más seguro, o los enfoques éticos y jurídicos.

Volvemos al principio. Hay que crear grupos de trabajo. Hay que fomentar la investigación y la gestión del conocimiento. Hay que elevar el nivel técnico de nuestra actividad de tiempo libre. Una forma clara de hacerlo es aproximando los mundos de la práctica del montañismo y de la universidad. En este sentido, quiero adelantar la noticia de una acción bonita que está preparando la EMF: la propuesta de un curso de tres días sobre aspectos sociales del montañismo (ecología, riesgo, TICs), en el marco de los Cursos Europeos de Verano de la UPV/EHU en Donosti, el próximo septiembre. Será una primera experiencia, trayendo los mejores especialistas del Estado, para plantear los grandes problemas y orientar el debate hacia las soluciones. Y para que en los próximos años afloren nuestros equipos de profesionales y académicos especializados en estos temas. El beneficio será para todos los montañeros y las montañeras.

**Txomin Uriarte**